

## CVCE ko bazkideek egindako jarduerengatik Urteroko laguntzak

CVCEk, bere bazkideek, bakarka edo kolektiboki egiten dituzten kirol nahiz kultur jarduerak aitortu nahi ditu. Urtean zehar egiten direnak eta ezohizko ekintza moduan sailkatuta daudenak, eta kirol meritu bat suposatzen dutenak edo Elkarteari baio erantsia ematen diotenak. Horregatik, honakko deialdia egiten du, hurrengo oinarriekin:

1.-Kirol beka hauek Club Vasco de Camping Elkarteko bazkide guztiak eskatu ditzazkete, beti ere, eskaera egiten den urtearen urtarrilak 1 baino lehen egin badira bazkide. Horretarako, laguntzen deialdan idatziz aurkeztu behar dute haien eskaera.

### ***Eskaerak, derrigorrez, hurrengo informazioa bildu beharko du:***

- 1.1.-Jardueraren deskribapena eta hau aurrera eramango duten kidea.
  - 1.2.-Aukeratzen den modalitatearen arabera, jardueraren ezaugarri teknikoak. Kirolaren arloko ekintzak badira, zailtasuna, luzera eta desnibela adieraziz. Beste moduko jarduera bada, ezaugarriak, originaltasuna eta bere balioa.
  - 1.3.-Jarduera noiz egingo den zehaztu, data eta ordutegia, eta honen ezaugarriak.
  - 1.4.-Egoera geografikoa (herrialdea, mendikatea, mendigunea, mendia, etab.) eta jarduera ekintza original edo balio bikaina egiten duten ezaugarri bereziak azaldu.
  - 1.5.-Ekintza egiteko eskatu beharreko baimenak
  - 1.6.-Jardueraren argibide-dossiera, ezaugarri teknikoak argitzeko beharrezkoa den material audibisualarekin.
  - 1.7.-Eskatzailearentzat garrantzitsuak diren beste gauzak.
  - 1.8.-Taldekideen kontakturako datuak, telefonoak, helbideak, posta elektronikoak.
- 2.-Informazioa, posta elektronikoz edo beste modu digitalean bidali behar da Elkarteko idazkaritzara. GAIAN hau ezarri behar da: "Urteroko laguntzak bazkideek egindako jarduerengatik" (urtea zehaztuz)
- 3.-Eskaerak aurkezteko epea azaroak 30 an bukatzen da (barne).
- 4.-Epaimahaia Elkarteko Zuzendari Batzordeak aukeratuko du. Honen kide eta laguntza eskatu den modalitatearen araberako adituek osatuko dute Epaimahaia. Dokumentazio gehigarria eskatu dezakete eztabaida eta bozketa garaian argitzeko zerbait dagoela pentsatzen badute.
- 5.-Elkartean egiten diren ekintzen antzeko jarduerak soilik ahal izango dute parte hartu laguntzan.
- 6.-Gure aldizkarian, Errimaia, web orrialdean, egutegian erabili ahal izango ditu Elkartek deialdian aurkeztutako materiala. Baita proiektio bat bota edo erakusketa ezarri elkartean.
- 7.-Sariak: Bi sari daude. Lehenengoa: gehienez 1500 euro eta Bigarrena: gehienez 1000 euro.
- 8.-Sariak, Elkartean egingo den ospakizun batean banatuko dira. Sarituak, derrigorrez etorri behar dira bertara. Ez badira agertzen, kobratzeko eskubidea galduko dute. Sari bat edo biak hutsik geratu daitezke Epaimahaiak horrela adosten badu.
- 9.-Epaimahaiak, bere irizpide onez, oinarrietan agertzen ez diren kasuak erabakitzeko ahalmena dauka.